

LANAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua CANVAS ereduaren oinarrituta dago. Hura egiten hasi baino lehen, gizartean zeuden beharrak identifikatu behar genituen. Ikusi genuen obesitate tasa altua zegoela eta gure taldean kirola gustukoa dugunez, mugitzeko zerbait asmatu nahi genuen. Horrez gain, energia sortzaile ez berriztagarriek, kutsadura handia sortzen dutela ikusi ondoren, gure egunerokoa erabiltzen dugun tresna bat jasagarri bihurtzea erabaki genuen. Horrela jaio zen gure bizikleta garbigailua.

Beraz, kirola egiten dugun bitartean arropak garbitzea ahalbidetzen digu gure asmakizunak. Gainera ez du batere elektrizitate kontsumituko guk bizikletan ibiltzean erabiltzen dugun energia zinetikoa baliatuko du martxan jartzeko. Horrek bi ondorio dauzka, alde batetik energia berrerabiltzen dugu honela energia berriztagarria sustatuz, horrek arropa garbitzean, ez kutsatzea egingo du. Eta bestalde, elektrizitate gutxiago kontsumitzen dugu, horrek dirua aurrezteko ahalbidetzen du eta ondorioz produktua konpentsatzeko aukera ematen du.